


Hezkuntza Aiaraldean

Adar askoko zuhaitza



*Edukiz eta publizitatez
osaturako gehigarri berezia*

Eskola publikoak



ETXAURREN IKASTOLA



email: 010327aa@hezkuntza.net



ZABALEKO IKASTETXEA



email: 010003aa@hezkuntza.net
www.zabaleko@hezkuntza.net



IRAKASKUNTZA:

Haurreskola (0-2 urte)
Haur Hezkuntza (2-5 urte) D eredia
Lehen Hezkuntza (6-12 urte) D eredia

ZERBITZUAK:

Eskola garraioa
Jantokia, bertan eginiko bazkaria
Teknologia berriak
Kirol instalazioak
Ingelesa 4 urtetik gora
Musika 2 urtetik gora
Liburutegia
Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak
Psikomotrizitatea 2 urtetik gora
Hezkuntza premia bereziko baliabideak
Zerbitzu Psikologikoa

PROIEKTUAK:

Eskola Agenda 21
Hezkidetzatza / Elkarbizitza
IKT: Heldutasun 2. maila
Bikoteka irakurtzen (Lehen hezkuntza)
Hitzet Hitz agerkaria

IRAKASKUNTZA:

Haur Hezkuntza D eredia (2-5 urte)
Lehen Hezkuntza D eredia (6-12 urte)

ZERBITZUAK:

Jantokia / liburutegia
Eskola garraioa
Taldea multiprofesionala
Gela guztiak informatizaturik
Informatika gela
Ingelesa 4 urtetik gora
Musika 4 urtetik gora
Kirol instalazioak
Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak
Bikoteka irakurtzen
Kulturartekotasuna
Ortu ekologikoa

PROIEKTUAK:

Agenda 21
IKT: Prestakuntza informazio eta komunikazioaren arloko teknologia berrietan
Eleaniztasuna
V STEAM bidelaguna



AIARALDEKO Eskola Publikoa

MATRIKULA EPEA: URTARRILAREN 27TIK OTSAILAREN 7RA
2020/2021 IKASTURTEA



LUCAS REY matiao de landaburu HERRI IKASTETXEA



email: 010327aa@hezkuntza.net

ARTEKO GURE AMA HERRI IKASTETXEA



email: 010010aa@hezkuntza.net

IRAKASKUNTZA:

2 urte, D eredia
Haur Hezkuntza (3-5 urte)
B eta D ereduak
Lehen Hezkuntza (6-12 urte)
B eta D ereduak

ZERBITZUAK:

Eskola garraioa
Jantokia (bertan eginiko bazkaria)
Teknologia berriak
Ingelesa 3 urtetik gora
Musika 3 urtetik gora
Ikasleen zaintza 07:40etatik
Liburutegia eguerdian
Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak
Taldea psikopedagogikoa

PROIEKTUAK:

Eskola Agenda 2a, negutegia
Elkarbizitza, hezkidetzatza, patio inklusibo proiektua
Etwinning: europar proiektua
Sare hezkuntza: teknologia berriak

IRAKASKUNTZA:

Udal Haurreskola (0-2 urte)
Haur Hezkuntza (2-5 urte) D eredia
Lehen Hezkuntza (6-12 urte) D eredia

ZERBITZUAK:

Eskola garraioa
Jantokia
Sukaldea
Ingelesa 4 urtetik gora
Musika 4 urtetik gora
Goizeko Betatik haurtzaindegia
Liburutegia
Taldea psikopedagogikoa
Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak
Kirol instalazioak eta berdeguneak
Psikomotrizitatea (Haurreskolan eta Haur Hezkuntzan)

PROIEKTUAK:

IKT Heldutasun 2. maila
Elkarbizitza
Zientzia-Hezkuntza (Haur eta Lehen Hezkuntzan)
Kontzientzia fonologikoa (Haur Hezkuntzan)
Bikoteka irakurtzen (Lehen Hezkuntzan)
Matematika Tailerra (Lehen Hezkuntzan)
Euskararen normalkuntzarako proiektua
Matematika OAOA



URDUÑA HERRI IKASTETXEA



email: 014379aa@hezkuntza.net

IRAKASKUNTZA:

Haur Hezkuntza D eredia (2-5 urte)
Lehen Hezkuntza D eredia (6-12 urte)

ZERBITZUAK:

Doako eskola garraioa
Guraso elkateak kudeatutako jantokia, bertoko eta inguruko elikagai ekologikoa
Ingelesa 4 urtetik gora
Musika 4 urtetik gora
Liburutegia (eskola eta eskolaz kanpoko orduetan)
Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak
Psikopedagogia laguntza
Goizeko gela (8:00etatik aurrera, adin guztiak)

PROIEKTUAK:

Agenda 21
Elkarbizitza proiektua
Elikagiltza proiektua (elikadurari buruzko hezkuntza programa)
Ortu ekologikoa eta jasagarria
Euskararen Normalkuntzarako Proiektua
Ikasketa kooperatiboa



OKONDO ESKOLA



688 81 38 06



amara berri

IRAKASKUNTZA:

HAUR HEZKUNTZA (2-5 urte) D eredia
Antzerkia
Denda
Heuristikoa (2 urte)
Zientzia
Liburutegia
Eskola ortua
Programazioaren eta robotikaren hastapenak
Ingelesa

ZERBITZUAK:

Jantokia
Goizeko gela
Eskolaz kanpoko ekintzak

PROIEKTUAK:

Amara Berri Sistema
Kalitatea Hezkuntzan
IKT-n heldutasun maila aurreratua
Hezkidetzatza plana/ Elkarbizitza
STEAM proiektua
Sare Hezkuntza
Euskara normalkuntza
Naturaren zaintza
Etengabeko prestakuntza



ZARAUBE INSTITUTUA



email: zaraobe@zaraobe.net - www.zaraobe.net - twitter

HEZKUNTZA ESKAINTZA:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
DBH (B eta D ereduak)
Batxilergoa (D ereduak)
Heziketa Zikloak
Oinarriko Lanbide Heziketa
Lanpetu eta langabetuentzako formakuntza
DUAL (lanbide heziketa)

ZERBITZUAK:

Jantokia
Eskola garraioa
Kirol instalazioak
Orientazio akademiko profesionala
Lan poltsa

PROIEKTUAK:

Aniztasunaren trataera
Agenda 21
Europar proiektuak
Euskararen normalkuntzarako proiektua
IKT heldutasun 2. maila
Berrikuntza proiektuak
Hezkidetzatza
Erronketan oinarritutako irakaskuntza (LH)

AIARA ESKUALDEKO IKASTETXE INTEGRALA

DBH

BATHILERGOAK

HEZIHETA ZIKLOAK

ENPLEGURAKO PRESTAHUNTZA


ENPRESENTAZKO ZERBITZUAK



Eskola publikoak

Patioa aldatzeko prozesu parte hartzailea burutu dute Zaraobe Institutuan. Egitasmo horren sustatzaileek proiektuaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Nola egin patio inklusibo bat: Auzolana Zaraoben



Auzolan bidez birmoldatu dute jolastokia. Zaraobe Institutua

Zaraobe etengabeko aldaketan dagoen ikastetxea da, hobekuntza beti helburu, jakina. Egia esan, gure ikasle gazteen patioak bazeukala zer hobetu iruditu zitzaigun. Irakasle batzuen ekimena nahikoa izan da eraldaketaren indar guztiak batu eta martxan jartzeko: ikasleek, guraso elkarrekin egin dute lan patio inklusiboagoa eta erakargarriagoa lortzeko. Emaitzak onak izan dira, baina emaitza bezain asegarria, honelako proiektu bat burutzeko prozesua bera.

Aldarazi ahal izateko, ikasle erabiltzaileen iritzia ezinbestekoa zenez, haiei galdetzea erabaki genuen. Inkestak pasatu genizkien zer behar zuten galdetuz, kuxak utzi genituen geletan eta astebeteko epea eman genuen. Haien eskaera zabala izan zen: banku gehiago, mahaiak, zakarrontzi gehiago, kirol material anitza, torneoak (zelaia erre, artzikirola, saskibaloia, futbola, baloi eseria...), iturria, zuhaitzak, belar gehiago, kolunpioak, tirolina, futbol zelaia, patioari kolorea ematea (twister, zirkuitoak egin, 3 lerroan, ariketa egiteko instalazioak, estalki gehiago, jostailu handiak, ordenagailuak, frontoia, igerilekua, horrenbeste jenderikez egotea...) milaka ideia, batzuk egingarriak, besteak amets. Ondoren, haiek emandako erantzunak kontuan harturik moldaketei ekin genien. Eskaturiko moldaketeak lana eskatzeaz gain, diru laguntza ere behar zuten. Gure ikastetxeko Guraso Elkarrekin

Ikasle erabiltzaileen iritzia batu zituzten lehenbizi, eta ondoren egin dituzte auzolanak

batzartu ginen haien seme-alaben proposamenak helarazteko. Bilera horretan pentsatutako proiektua aurkeztu genien eta haiek lehenengo momentutik erakutsi ziguten proiektua ahalbidetzeko gogoa. Horrela, gure IGEk, guraso elkarrekin, atsedenaldira kirol materiala, patioari hesia estaltzen duen egitura, eta zoruan jokoak margotzeko pintura ordaindu egin dugu.

Bestalde, zurgintzako irakasleek eta ikasleek banku polit-sendoak bideratu zituzten. Gainera 4 piknik mahai erosi genituen, eta haiek eskatzen zuten moduan aterpe barruan jarri genituen. Bankuek bezala, hasieratik oso harreara ona izan zuten. Patioaren eraldaketa genero perspektibaren ikuspuntutik gainbegiratu dugu. Hori dela eta, futbol ateez zuten nagusitasunari -patio erdian zeuden- arreta kendu genion. Ateak desagerarazi genituen. Oso hezigarria izan da esperientzia. Gure hurrengo ekintzak, patioari kolorea emateak, bi proposamen ekarri zituen: orain arte izan dugun barradun hesia

estali eta zoruan jokoak margotu. Hesia koloredun egitura batez estaltzeak beste ukitu bat ematen dio patioari, itxita jarraitzen du baina espresuki egindako egitura batez: berdea, dotorea, alai.

Kolorea zoruari

Zoruari kolorea ematearen prozesua luzeagoa izan da. Krokisak prestatu genituen Twister, 3 lerroan, laberintoa, zirkuitoak, partxis erraldoia eta *mirror me* bezalako jokoak planteatuz.

Lan hau ikasle eta irakasle artean burutu zen. Honen ikasle batzuen arropen ondorio koloretsuak izan zuten. Zaila suertatu zen hainbeste pertsonen zereginak koordinatzea, margolariak ez garela kontuan harturik, baina esan dezakegu proiektu honen partaide izateak bere esanahi propioa utzi digula askori, dela ikasle dela irakasle.

Bukatzeko, arte eta filosofiarren ukitua. Plastika irakasleak murala egin du patioan. Mural horren mezuak pentsatzen jartzen gaitu... Hain beharrezkoa dugun zerbait, bizi garen teknologia garaian: gure nortasuna zaindu horrenbeste espazioaren aurrean.

Eta horrela, komunitatearen lana eta kementa lagun, kolorea eman diogu gure institutuari eta azken finean, gure bizitzari ere. Baina hau ez da gelditzen; aurten gure ikasle ongi zateka betiere helburu, ludoteka jarri dugu martxan eta kiroldegia zaharberritu dugu.

Ate irekien jardunaldiak, bihartik aurrera

Datozen egunetan egingo dituzte aurkezpenak Zaraoben, Etxaurren, Lucas Reyn, Zabalekon eta Urduña zein Okondoko eskoletan.

Ate irekien jardunaldiak egingo dituzte datozen egunetan eskualdeko ikastetxe publikoek. Zaraobe institutuko arduradunak, adibidez, Aiaraldeko eskoletara bertaratuko dira, hezkuntza proiektua azaltzeko. Urduñako Herri Ikastetxean bihar egongo dira, urtarrilak 23, 15:30ean. Etxaurren, aldiz, 27an egingo dute aurkezpena, 15:00etan. Amurrioko gurasoekin institutuan bertan bilduko dira 27an, 17:00etan eta Arteko Gure Aman, 28an, 16:45ean. Bukatzeko, 29an ikastetxearen azpiegiturak erakusteko jardunaldi irekia egingo dute.

Gainontzeko ikastetxeak

Urduñako Herri Ikastetxeak egun bat lehenago (28an) egingo du bere azpiegituren aurkezpena, 17:00etan. Etxaurren, aldiz, urtarrilaren 27 eta

28an egingo dituzte ate irekien jardunaldiak eta saio informatiboak, 10:00etatik 15:00etara.

Lucas Reyn ere bihar (urtarrilak 23) egingo dute bilera irekia, 15:00etan ikastetxeko liburutegian. "Bilera horretan gure eskolako zenbait aspekturi buruz hitz egingo dugu: hezkuntza proiektua, baliabideak, proiektuak, 2 urteko geletako antolamendua... eta matrikulazio prozesuari buruzko zalantza argitzen saiatuko gara", azaldu dute ikastetxeko arduradunek. Bilera bukatzean eskolatik ibilbide bat egingo dute.

Zabalekon 27an egingo dute bilera informatiboa eta instalazioen erakusketa, 13:00etan. Arteko Gure Ama ikastetxean 29an izango da zita, 16:45ean. Okondoko Eskolara, aldiz, bihar egongo da bertaratzeko aukera, 17:00etan.

Urduñako Herri Ikastetxea, egitasmo berrietan murgilduta



Bi urte daramatza ikastetxeak jantoki eredu berriarekin. Urduñako Herri Ikastetxea

Urduña Herri Ikastetxea hainbat proiektutan parte hartzen ari da (liburutegia, normalkuntza, Agenda 21, elkarbizitza, hezikidetzatza, ikasketako kooperatiboa...) eta orain dela bi urte jantokiko eredu berriarekin hasi zen, jantoki bertan prestatuz eta bertako elikagaiak erabiliz.

Eskolako Agenda 21 egitasmoarekin bat, ingumenarekiko ohitura onak sustatu nahi dituzte eskolan. Horretarako, "Lurpeko" izeneko egitasmoa aurrera eramaten hasi dira. Bertan, ortu ekologiko, jasagarri eta iraunkorra diseinatu, sortu eta zaindte dute helburu.

Laudio ikastola

IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK

OTSAILAK 7 ARTE



*etorkizun
hobea sortzeko
hezten dugu*



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus

Laudio ikastola

Laudio Ikastolak abian jarri du Hik Hasi, Euskal Heziketarako egitasmoak, sustatutako “Birsortu” ekimena Haur Hezkuntzan, Italiako Reggio Emilian abian den “Remida”

Birziklapen Sortzaile Zentroan oinarrituta. Jatorri anitzeko materialen berrerabilpena hezkuntza jardunaren egunerokoan balioan jartzean datza proiektua.

Material berrerabilgarria, proiektu pedagogiko bihurtuta

Birsortu da Laudio Ikastola, tresna eta proiektu berrietan oinarrituta. Hain zuzen, Haur Hezkuntzako etapan material berrerabilgarriekin lan egiteari ekin diote, “Birsortu” egitasmoa ardatz hartuta. “Birsortu” proiektua sormenean eta berrerabilitako objektuen ikerketan oinarritutako proiektu kultural, pedagogiko eta jasagarria da”, adierazi du Izaskun Goitia Haur Hezkuntzako arduradunak. Prozesuaren bidez, kontsumo arduratsua eta inklusioa sustatzen dihardute. Nola, baina?

Euskal Herriko hezkuntza esparruan erreferentziala den Hik Hasi egitasmoak garatu duen proposamena da “Birsortu”. Ekimen berritzaile hau Italiako Reggio Emilian sortutako “Remida” Birziklapen Sortzaile Zentroan oinarrituta dago. Bere garapenerako esperientzia pilotu bat zabaltu zuten hainbat ikastetxeren artean Hik Hasiren gidaritzapean, eta emaitza onak ikusita, egitasmoan sakontzea erabaki du Laudio Ikastolak: “proba pilotua egiteko gonbita luzatu ziguten, eta horrela sartu ginen gu. Iaz izan zen hori eta aurtengo ikasturtean erronkarekin jarraitzea erabaki dugu”.

Emaus-ekin lankidetzan

Ekimenera batu diren ikastetxeek material berrerabilgarri andana behar izan dute eta horretarako ekonomia sozial eta solidarioa sustatzen duen Emaus Gobernu Kanpoko Era-kundearen lankidetzan izan dute biltegi komuna sortzerako orduan, altzari, arropa eta beste-lako materialen bilketan duten urteetako eskarmentua hezkuntza esparrura ekarri.

“Birsortu” izena jarri diote ekimenari, eta haurren onurez gain familien parte hartzea azpimarratu dute. Kartoia, plastikoa, egurra, aluminioa, zuntzak eta zeramika bezalako materialak dituzte lanabes. Zertarako, ordea?

Orotariko materialak erabiltzen dituzte umeekin, “per-

txak, tenis pilotak gordetzeko ontziak... Egunerokoan erabiltzen diren materialekin kontaktua izatea eta sormena piztea dagakoa”. Bete, hustu, eskegi eta beste hamaika jolas sortzen dituzte haurrek horrela. Gauzak hala, sormena bihurtu dute lanabes, eta eguneroko materiala ikasgai. “Adin-etapa honetan kantitatea garrantzitsua da, bildumak osatzen aritzea. Denek behar beste material izatea gaikoetako bat da”.

Orotariko materialak erabiltzen dituzte umeekin, euren irudimena sustatzea helburu

Izan ere, Euskal Herri mailako programa izanik, Gipuzkoan dute biltegi komuna, eta bertatik lortutako materialekin batera familiek ekarritakoak ere erabili dituzte: “Debagoiengan dago Hik Hasiko Birsortu programan gabiltzanon biltegia, baina kantitate gutxi iritsi zen iaz, eta gurasoen parte hartzea eskatu genuen gutun bidez proiektua azalduta. Emaizta oso ona izan zen”.

Modu horretan lortu dute hezkuntza komunitatea aktibatzea, “familia batzuk ohitura dute kartoizko tutu sendoak ekartzeko, iturginen hodiak kasu”.

Egunerokotasunean hezteko eta esperimentatzeko materialen inguruko gogoeta luzatu du zentzu horretan Izaskun Goitiak: “Laudio Txikin hasi ginen honelako esperientziekin material naturalen alde egiten. Umeek benetako objektuak izan behar dituzte, ikusi eta erabiltzen dituztenak”.



Elementuekin esperimentatzean datza Haur Hezkuntzako metodologiaren zati handi bat. Laudio Ikastola

Haur Hezkuntzako basoa, jolastoki

Haur Hezkuntzako eraikinen aldameneko basoa jolasteko eremu bihurtu dute. “Hesia zabaltu dugu, umeek naturarekin kontaktu gehiago izateko”, adierazi du Izaskun Goitia arduradunak.

Jolastokia basora zabaltzeko apustua, ingurumenaz gozatzeko egin dute, “zementu lurrian eta bestelako tramankuluekin bakarrik ez jolasteko”. Jolasteko eremuak hormekin, koltxoiekin edo hesiekin inguratuta izaten dituzte haurrek normalean, “eta inolako oztoporik ez jartzen saiatu gara. Umeek bestela ez



dakite mendian ibiltzen, arraro sentitzen dira belarrarekin lehen kontaktuan. Erditik erreka igarotzen denez erreka dagoenean, zulo handiagoa egokitu dute umeek... Makiltxoekin,

aldapekin eta abar esperimentatzen dute. Guzti hori erronka da eurentzat, autonomia eta elkarri laguntzen ikasten dute eta. Bai umeak eta baita gu ere oso pozik gaude”.

Elkarriketa

“Gurasoei eskatuko nieke ikastetxe bat ez baztertzea etorkinen seme-alabak bertan egoteagatik”

AMELIA BARQUIN LOPEZ (Bilbo, 1965) MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA DA. IRAGAN OSTIRALEAN LAUDION EGON ZEN LAUDIOKO ZURRUMURRUEN AURKAKO AGENTEEK ANTOLATUTAKO HITZALDI BATEAN.

Immigrazioa, eskola eta bizikidetzak izan zenituen hizpide Laudionko mahainguruan. Zein da helerazi zenuen ideia nagusia?

Idea batzuk aztertu genituen. Besteak beste, agerikoa dena, gizartea anitza dela. Aniztasun hori areagotu da immigrazioaren ondorioz, baina, eta hau azkeneko hogeitun urteotan bizi izan dugu, Estatu kanpotik etorritako immigrazioa da, alderdi kultural desberdinekin. Nik esango nuke oinarritzeko kontu hauetan oso antzekoak garela, baina desberdintasun horren ondorioz aniztasuna areagotu egin da.

Momentu honetan esan dezakegu, immigrazioa geldituko balitz, aniztasun hori bertan dagoela jada. Orain badakigu etxe askotan praktikatzeko dela katolikoa ez den erlijio bat. Duela hogeitun urte salbuespena zen hori, orain ez da. Ohitura batzuk daude, etxe batzuetan desberdinak izan daitezkeenak: Jantzeko moduak, festa batzuk ospatzeko moduak, balio batzuk, etab. Hori gizarte honen parte da jada. Momentu honetan dagoen erroka hori guztia kudeatzea da, elkarbizitza aberasgarri batean bizi ahal izateko.

Hezkuntza sistemari buruz hitz egin behar dugu ere. Hezkuntza sistema oso garrantzitsua da elkarbizitza hori begira, eta ikusi behar dugu zer gertatzen ari den, nola hartu behar duen hezkuntza sistemak fenomeno hori. Orokorrean, fenomenoari harrera egin dio, baina ez eskola guztiek. Batzuek bai, beste batzuek ez horrenbeste. Horren atzean zer dagoen ikusi behar dugu, eta gizarte moduan zer erroka daukagun.

Nik uste dut ikastetxe batzuen ahalegina eskertu behar dugula. Egiten ari diren esfortzua eta gizarteari egiten dioten mesedea izugarria da, eta, aldi berean, batzuetan

gertatzen da ahalegin hori egiten duten ikastetxeek ez dutela gizartearen aldetik errekonozimendua jasotzen.

Batzuetan aipatu egiten da immigrazioarekin lotutako bizikidetzak arazoak daudela hezkuntza zentroetan. Horrela ikusten duzu zuk?

Ez, ez bereziki. Nik ezagutzen ditut ikastetxe ugari non aniztasun ekonomiko, soziala, kulturala eta jatorriari dagokiona dagoen; eta bizikidetzak ez da arazo bat. Bizikidetzak ona dago ikastetxe horietan. Estereotipo bat da hori, aniztasuna dagoen lekuetan arazo gehiago daudela.

Nik bizikidetzak beti dela gatazkatsua esango dut ere, beti. Bizikidetzak gatazkatsua da familian, maitasun harremanetan, auzoan, herrian... eta eskolan ere bai. Ezin dugu pentsatu elkarrekin biziko garela eta ez dela ezer gertatuko. Gatazkak gertatuko dira, eta oraingo ideia indartsu bat da gatazkari ezin zaiola ihes egin. Egin behar duguna da aurre egin eta kudeatzea.

Eskolan ikasi behar dugun gauza bat hori da, desberdinak garenon artean, gure desberdintasunak eta gure gatazkak eramaten ikastea.

Aipatu egiten den beste kontu bat da etorri berriak ez direla integratzen. Baina integrazioa eta asimilazioa bereizten dituzu zuk.

Bai. Nik uste dut hori bereiztea garrantzitsua dela. Batzuetan esaten dute, “begira, hamar urte daramatzate hemen eta Marokon bezala jantzen dira”, edo “jarraitzen dute haien erlijioarekin, ez dira integratzen”. Baina zer ari gara esaten? Zer da integrazioa?

Nik uste dut bi ardatz dauzkala integrazioak. Alde batetik,

gehiengoarekin harreman positiboa; gutxiengoan baldin bazaude, edo atzeritik etorri bazara, harrera gizartearekin harreman positiboa. Baina, bestalde, zure identitatea eta zure ezaugarriak mantentzean dago, eta bata ez du bestea kentzen. Hori izango litzateke integrazioa, biak egin ahal izatea.

Guk integrazioa eskatzen dugula esaten dugu, baina beste zerbait eskatzen ari gara: asimilazioa. Batzuetan autoktonook hori daukagu buruan, gehiengoaren harremanak positiboak direla eta hemengo ohiturak jarraitu behar direla. “Hemengo” esaten dugunean gehiengoaren ohiturak dira. Jatorriaren ikurrak eta ezaugarriak ezabatzea nahi dugu ere. Ea ez zaizun nabaritzen atzeritar jatorria duzula, gehiengo ez den erlijio bat praktikatzeko duzula. Integrazioa esaten dugu, baina jendeari eskatzen dioguna asimilazioa da. Irururra da, integrazioak berez ez dizulako eskatzen zure jatorriko identitatea ezabatzea.

Bilbo edo Gasteizko eskola batzuetako segragazio kasuak ezagun bihurtu dira. Herri txikietan ere horrelako kasuak ematen dira?

Nik esango nuke herri batean eskola bakarra baldin badago, seguruenik eskola horretan herriko ia ume guztiak egongo direla, berdin da haien jatorria, egoera ekonomikoa, eta abar. Baina ikastetxe bat baino gehiago baldin badago, ia leku guztietan nabaritzen da desberdintasuna. Batean kontzentratzen dira, hein handi batean, jatorri atzeritarra dutenak, eta baliabide ekonomiko gutxiago dutenak. Hori hainbat herritan eta hainbat lekutan errepikatzen ari da, berdin dio txikiak, ertainak edo handiak izan.

Elkarriketa

Atzeritarren seme-alabak, nahiz eta hemen jaio diren, diskriminatuak izaten ari dira gurasoen jatorriaren arabera. Ikastetxe konkretu batzuetan pilatzen ari gara pobreak eta jatorri atzeritarra dutenak. Hori hainbat tokitan ikusten ari gara, ez soilik Bilbon eta Gasteizen. Gasteizko egoera eskandalagarria da, baina hainbat herritan sortzen ari da kezka hau.

Zer gertatzen ari da? Zergatik? Gizartearen geruza bat, klase ertain autoktonoa, bilatzen ari da bere ezaugarri berdinak dituenak eskolan biltzea, eta aniztasuna besarkatzen duten eskolak baztertzen ditu.

Kultura aniztasuna eskola batentzako onuragarria dela esango zenuke?

Bai, noski. Nik kultura aniztasunari ez diot ezer txarrik ikusten. Besteak beste, bizikidetzak ikasteko aukera ematen du; gizarte plural honetan bizitzen ikasi behar da, eta kultura aniztasuna ez dagoen, edo aniztasun ekonomiko-soziala ez dagoen eskola batean, nola ikasiko duzu elkarbizitzen?

Bestalde, ni ez nago eskola batzuen alde, non soilik atzeritarrak eta pobreak dauden. Hori ez da kultura aniztasuna niretzat. Eskolak heterogeneoak izan behar dira, non hainbat egoera eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak elkartzen diren. Pobreen kontzentrazioak eta klase ertainen kontzentrazioak, nire ustez, ez dira onuragarriak eta ez dute elkarrekin bizitzen irakasten.

Etorkinak A eredura jotzen direla aipatzen da ere, eta normala dela D eredukoekin bereizketa egotea. Hori egia da? Euskarak zer paper jokatzan du integrazioan?

Hori duela urte batzuk gertatu zen, etorkinen seme-alabak nagusiki A eredura bideratzen zirenean. Baina gaur egoera aldatu da, hemen aurrerapauso bat nabaritu dela uste dut. Gaur, nagusiki, etorkinen seme-alabak D ereduan daude. Batzuek esaten dute, “ez, gure eskolara ez dira

etortzen etorkinek beren seme-alabak, A eredura bidaltzen dituztelako”. Ez da egia.

A eredua eredu hondarra da, oso txikia. Egia da bertan asko direla etorkinen seme-alabak, baina erlatiboki oso jende gutxi da. Momentu honetan, etorkinen seme-alabak D ereduan daude nagusiki, D publikoan. D publikoa da momentu honetan etorkinen seme-alabak euskalduntzen ari dena. Ikasle hauek euskalduntzeko zeregin garrantzitsua betetzen ari dira.

“Klase ertain autoktonoak aniztasuna duten eskolak baztertzen ditu”

Zeintzuk dira egoera honen aurrean planteatu beharko lirakekeen erronkak?

Hainbat erronka daude. Besteak-beste, hezkuntzari begira, umeen arteko harremana sustatzea. Elkar ezagutzea, elkarrekin ikastea eta bizitzea. Horregatik, niri eskola segregazioa ez zait ondo iruditzen, ez duelako hori ondo bermatzen. Ikastetxe batzuetan atzeritar jatorria dutenak eta pobreak egoteak, eta besteetan klase ertainekoak eta autoktonoak, ez du harremana bermatzen.

Beste batzuk esango nituzke ere: Baliabideen erronka, esaterako. Aniztasunari erantzuteak esan nahi du baliabide gehiago behar direla, denbora gehiago, pertsona gehiago. Batzuetan aniztasuna kudeatzen duten eskoletan sentitzen dute baliabideak falta zaizkiela ondo lan egiteko, hezkuntza sailak ez dituela ematen behar diren baliabideak. Nik uste dut horri buelta bat eman behar zaiola. Irakasleen formazioa ere bai erronka da, aniztasuna kudeatzeko, euskara irakasteko, hizkuntzen trataeran hobeto aritzeko... Hor badago elementu garrantzitsu bat.

Gero, gizarte moduan, badauzkagu beste erronka batzuk. Bizi garen gizartearen xenofobia puntu bat dago, aporofobiarekin batera.

Orain aurrematrikulazio kanpaina gaude ia, zer paper jokatu beharko lukete gurasoek?

Gurasoen kezka beti da seme-alabak ikastetxe on batean egotea. Nik eskatuko nieke ikastetxe bat ez baztertzea etorkinen seme-alabak bertan egoteagatik. Begira zer gertatzen ari zaigun, gizarte moduan zer kontraesanetan erortzen ari garen. Gizarte moduan zorrotzak gara etorkinekin, haiek asimilatzea nahi dugu. Baina, beste alde batetik, gertatzen zaigu ez dugula nahi gure umeak haien umeekin egotea.

Integratu behar dira, baina haiek bakarrik, autoktonoak presente egon gabe. Hori nola egiten da?

Funtsean oso antzekoak gara denok eta interes berak dauzkagu, balio berak. Ezaugarri kultural batzuk egon daitezke eta elkarrekin bizitzen ikasi ahal dugu. Ez diot horri txarrik ikusten. Uste dut, ziurrenik, gurasook, guraso batzuk, hausnarketa egin beharko dugula. “Ni ez naiz arrazista, baina” diskurtso hori gaingitu beharko dugu. Baina zer? Baina nik ez ditut nire umeak eramaten atzeritarrak doazen ikastetxeetara. Hori gaingitu behar da, harago joan behar da.

WWW.LAMILAGROSALAUDIO.EUS

ETORKIZUNERA BEGIRA

94 672 07 01

MATRIKULA ZABALIK! ZATOZ!

ATE IREKIAK
Urtarrilak 22 eta 29 17:30 - 19:30

La Milagrosa
Laudio Ikastetxea

LAUDIO UDALA

KRISTAU ESKOLA

Ikastetxea
La Milagrosa
Laudio

Aresketa Ikastola

Haurren autonomia, berezko gaitasunak eta autoerregulazioa bultzatzea helburu duen 1.500 metro koadroko espazioa eskaintzen du Amurrioko Aresketa

Ikastolak Haur Hezkuntzan, txoko eta baliabide desberdinez osaturikoa. 2-16 urte bitarteko bere proiektuaren barruan osatu du egitasmoa.

Amestu espazio aske bat

Espazio berri bat atondu dute Aresketa Ikastolan. "Urteetako hausnarketa pedagogiko partekatu baten ondorioz, amestutako espazio zabala eta askea lortzeari ekin genion 2018ko udan. 1500 metro koadroko txoko eta baliabide desberdinez sortutako espazio honek, umeari nonnahi egoteko eta zernahi 'ikertzeko' askatasun osoa eskaintzen dio", azaldu dute ikastolako kideek.

"Haurra erdigunean" jartzea da berez Aresketako hezitzaileen abiapuntua, eta honek metodologia "bizia" eskatzen du.

Hezkuntza eredu propio honen bidez honako helburua lortu nahi dute: haurren autonomia, berezko gaitasunak eta autoerregulazioa bultzatzea. "Taldekatzeko flexibea nahiz anitza bermatzen duen espazioa da. Hezitzaileekin, kolektiboan, zirkulazio autonomoan, adin bereko haurrekin nahiz adin desberdinekoekin egonik elkarri elikatuz... Espreski prestatutako testuinguruetan libreki interakzionatzeko aukera izango du umeak, urte baitugu umea bera izan behar dela beraren garape-

naren eta ikaskuntza prozesuaren protagonista: elkarrekin, elkarrengandik, elkarlanean.

Bestetik, pentsatzen ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, bera izaten, egiten eta ekiten... Umearen garapen integratuean, familia eta ikastolakideok bidelagun eta konplize izango gaitu haurrak uneoro, beharrezkoa denean esku hartzeko prest".

Halaber, eta ohiko zerbitzu eldago kienean, aurtun, jantoki-ko zerbitzuan "aldaketa nabariak" burutu dituzte: "Associació Menjadors ecològics" elkar-tearen eskutik aholkularitza eta formazioa burutu ondoren, haurren elikadurarako "elika-dura-ohitura osasungarriak jorratzen eta zabaltzen saiatzen ari gara", betiere gertuko ekoizleak eta ingurumena aintzat hartuta.

Bilera informatiboa

Proiektua bere osotasunean azaltzeko urtarrilaren 27an bilera informatiboa egingo dute, Aresketa Ikastolan bertan, 17:15ean.



1.500 metro koadroko espazio berria atondu dute ikastolan. Aresketa Ikastola

ARES KETA IKASTOLA



Aresketa auzoa, 2
01470 Amurrio (Araba)
945890360
aresketaikastola@aresketaikastola.eus
www.aresketaikastola.eus

etorkizunerantz
hezkuntza
eraldutzen



MATRIKULAZIOA:
URTARRILAREN 27tik OTSAILAREN 7ra

2018an jaiotako umeen
GURASOENTZAKO INFORMAZIO BILERA

2020-01-27
17:15ean
Aresketa Ikastolan



Bestelako hezkuntza eredua eskaintzen dute Aresketan. Aresketa Ikastola

Artikulua

Hitzaldi ugari antolatuko ditu Laudioko Kili-kili Hazkuntza Taldeak aurtan. Horrez gain, taldekideen arteko bilera irekiak antolatzeari ekingo diote berriz, kezka, zalantza eta interesak

partekatze. “Hazkuntza kontzientea” dute oinarri, eta “errespetuan oinarritutako” jendarte bat eraikitzea, aldiz, helburu.

Kili-kili Hazkuntza Taldea, bestelako jendartearen sustatzea helburu

Hezkuntza eskaintzari buruzko hitzaldia eskaini zuen Laudioko Kili-kili Hazkuntza Taldeak iragan astean, bigarren urtez jarraian. Aurrematrikulazio garaia dela eta antolatu zuten solasaldia. “Laudioko familiek bost eskolen artean aukeratu behar dute. Horregatik, interesgarria iruditu zitzaigun eskola guztiak gela berean biltzea, bakoitzak zer eskaintzen duen jakiteko eta galderak planteatu ahal izateko”, azaldu dute taldeko kideek. Balorazio positiboa egin dute: “40 heldu inguru bertaratu ziren, eta hori asko da Laudio bezalako herri batean”.

“Edoskitze taldea sortu zen lehenbizi, duela bost urte. Astero biltzen ginen hasieran eta jende berdina etortzen zen gehienetan. Edoskitzea izaten genuen hizpide, baina

hezkuntzari lotutako galdera asko ere sortzen ziren: zalantzak, kezkak, haserreak, frustrazioak, pozak...”. Horregatik erabaki zuten hazkuntza taldea sortzea. Hilean behin biltzen hasi ziren, eta elkartearen sortu zuten gero.

“Hazkuntza kontzientea zabaltzea” da taldearen helburu nagusia. “Munduan egoteko modu bat da guretzat hazkuntza modu hori, errespetuan oinarritua”. “Helduzentrismoarekin” ere amaitu nahi dute, “beste gizarte mota bat sustatzeko”.

Bi ildo jorratzen dituzte horretarako. Alde batetik, hitzaldiak antolatzen dituzte. “Otsailean erreflexu primitiboak buruzko solasaldia eskainiko dugu eta martxoan zoru pelbikoari buruzko beste bat egongo da”, aurreratu dute.

Bestetik, hazkuntza taldea dago. “Orain hilero biltzeari ekingo diogu berriz. Bilera libreak izango dira, edonor bertaratu daiteke. Batzuetan gai bat izaten dugu hizpide eta beste batzuetan irekian egiten dugu, unean une sortzen denari buruz hitz egiteko”. Bazkietzak egiteari ere ekin diote, taldean zenbat pertsona dauken kalkulatzeko. “Iaz 32 familia inguru egon ginen. Etengabeko berritze prozesuan gaudela. Oso elkarte gaztea da gurea, eta nondik jo ikusten ari gara”.

Facebooken (Kili-Kili. Laudioko Hazkuntza Taldea) ematen dute egiten dituzten jardueren berri. Taldearekin harremanetan jartzeko, aldiz, kilikili.laudio@gmail.com helbide elektronikoa baliatu daiteke.



Eskintza ugari egiten dituzte hazkuntza taldeko kideek. Kili-kili



JULEN PAGAZARTUNDUA GONZALEZ

EUSKARA IRAKASLEA

Aukeran, euskaraz

Iritsi da eguna. Jakinminaren, zirraren eta ezinegonaren arteko nahasketa. Haurra urduri eta gurasoak edo aitona-amonak are urduriago. Biek eskua elkarri helduta egin dituzte etxetik ikastetxeko atera arteko metroak. Dena matrikula egin osteko hilabete luzeetan pentsatu bezala ateratzeko desioan: eskolara heldu, semea, alaba edo biloba agurtu eta, egun osoa inongo negar edo ezbeharrik gabe igaro ostean, bere bila itzuli. Ez dirudi horren konplexua.

Hala ere, bertara ailegatu bezain pronto jende arrotza nonahi, ume zein heldu. Hasierako urduritasuna, modu esponenzialean, indarra irabazten doa, bat-batean, mantala soinean duen maisu zein maistra bat hurbildu eta “Kaixo, egun on. Zer moduz?” botatzen dien arte. Eskola-ibilbideari hasiera eman dion esaldia.

Bertan lagunak (eta, zenbaitetan, etsaiak) egiten hasi eta, gutxika-gutxika, elkarrekin hazi. Eskola nahiz haurren mundua inguratzen duten hesiak gaingitzen hezi. Etengabe jauzika, baina inoiz jauzi gabe. Helduak-edo izatera heldu garenok ezin ditugu ahaztu gure hainbat eta hainbat maisu-maistren izenak, tarteka-marteka, neska-mutilak, astakiloak, oso aztoratuta ibiltzen direla esango duten horienak.

Eskerrik asko, haiek (gurasoak edo senideak) erdaldunak izan arren, datorren ikasturtera begira, eredu euskaldunaren alde egin eta euren seme-alabei aukera hori eskaintzeagatik. Amets Arzallusek 2013ko Bertsolaritza Txapelketa Nagusiko amaierako agurrean esandakoan oinarrituta, eskerrak eman nahi dizkiet haurrak ginela euskaraz erakutsi ziguten eta, 2020-2021 ikasturtean, Laudioko ikastetxeetan hasiko diren haurrei erakutsiko dieten guztiei. Aukeran, euskaraz nahiago dugulako.

**hitz
zentroa**

Karmen kalea 39,
01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22
hitz.zentro@gmail.com

**PROFESIONAL
EUSKALDUNAK
ZURE
ZERBITZURA**

- Logopedia.
- Pedagogian laguntza terapia.
- Psikologia: umeentzako, helduentzako, bikoteentzako eta familientzako psikoterapia.
- Sexologia: heziketa, aholkularitza eta terapia.
- Fisioterapia pediatrikoa.
- Arreta goiztiarra (0-6 urte bitartekoa).
- Arabako Foru Aldundiak baimenduta
- INTERAC-ekin lankidetzat: gaitasun intelektua handiko neska-mutilen detekzioa eta arreta.
- Errendimendu Altuko taldeak (GAR).
- Ikastetxeekin harremanak.
- Gurasoentzako orientazioa.
- Tailerrak: irakurketa, hezkuntza, ahotsa, emozioak...



EVA ALONSO LARRAZABAL
LOGOPEDA eta PEDAGOGA

EZTIZEN ALDAMA JAUREGI
FISIOTERAPEUTA PEDIATRIKOA

DIANA IBARGUTXI ABARRATEGI
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGOA / SEXOLOGO KLINIKOA

Kokoriko Hezkuntza Faktoria

Hezkidetzari buruzko ikastaroa antolatu du Kokoriko Hezkuntza Faktoriak. Bizkaiko Urtxintxa Eskolarekin batera osatu du prestakuntza. 100 orduko ikastaroa izango da guztira. Saioak astelehenetan izango dira, baita astebururen batean ere. Izen ematea irekita dago dagoeneko.

“Hezkidetzan aditua” ikastaro trinkoa antolatu du Kokorikok

Kokoriko Hezkuntza Faktoriak aurkeztu du dagoeneko 2020ko lehenbiziko ekintza: Hezkidetzan aditua ikastaroa. "Hezkuntza munduan lan egiten duen edonorentzako bideratutako Hezkidetzan Aditua ikastaroa egingo dugu", adierazi du Aritz Lili Lekandak. Ikasurte berriari dagokionez, hainbat erronka dituzte esku artean.

Saioak astelehenetan izango dira, 17:00etatik 20:00etara, "baina asteburu batzuetan ere garatuko da". Edozelan ere, egutegia moldagarria izango da, partaideek eskatuz gero. Jardunaldiak Faktoriaren egoitzan planteatu dituzte, Audioiko Gardeako pabilioian. Alabaina, parte hartzaileen arabera eskualdeko beste herriren batean egin daiteke, adierazi dutenez.

Prezioari dagokionean Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak bazkideentzat 40 euro balioko ditu ikastaroak, eta gainontzekoentzat 50€. "Bizi esperientzietan oinarritutako trebakuntza izango da, metodologia parte hartzaileak; teoria eta praktika uztartuko dira". Izena emateko www.labur.eus/formakuntzak_kokoriko helbideko fitxa bete behar da, "eta zailantzarik izatekotan hezkuntza@aiaraldea.eus posta elektronikora idatzi".

Otsailetik ekainaren 8ra luzatuko dira saioak, eta bost bloketan bereizi dituzte arda-

tzak: teoria feministaren oinarriak, proiektuen planifikazioa eta kudeaketa balioen ikuspegitik, pedagogia feministak eta hezkidetzaren estrategiak, hezkidetzako esperientzia bat eta lanen aurkezpena. Izan ere, prestakuntzaren amaiera gisa, bakoitzak lan bat osatu behar du.

Bloke bakoitzaren baitan, ondorengo gaiak jorratuko dira: Genero sistemak, feminismoaren oinarri teorikoak, ahalduntzea eta boteretzea, feminismo dekoloniala eta antiarrazista, Euskal Herriko genealogia feminista, indarkeria sexista egiturazko fenomenoak, indarkeria sexistaren prebentzioa, sexuazio prozesuak eta emozioak, hizkuntza eta irudia, genero eraikuntzak eta haurren garapena, pedagogia feminista, hezkidetzaren jardura hezitzailean, "gorputza gure bizitoki" eta, aniztasun funtzionala eta sexualitatea.

Hizlariak

Hainbat pertsona eta eragile arituko dira ikastaroan hizlari bezala. Emaginek hasierako blokeak emango ditu (genealogia feminista, genero sistemak...). Coni Karranzak eta Itziar Gandariasek (Mujeres del Mundo eta Emakumeen Mundu Martxako kideak, hurrenez hurren) feminismo dekoloniala izango dute hizpide. Soma institutuko kideak arduratuko

dira sexuazio prozesuen nondik norakoak azaltzeaz. Amaia Alvarezek, aldiz, hizkuntzari lotutako blokea emango du.

Beste hizlari batzuk ere egongo dira ikastaroan, "gai bakoitzean aritu eta adituak", Kokorikoko kideek azaldu dutenez. Hezkuntza faktoriako kideek

nabarmendu dute ikastaroa "hezkuntza formal zein ez-formalean dabilen pertsonen" bideratua dagoela. "Feminismoaren oinarriak hezkuntzan aplikatzeko modua da hezkidetzaren. Gauzak hala, hezkuntza eremuan dabilen ororentzat izango da interesgarria ikastaroa".

Egitasmo gehiago

Honakoa ez da Kokorikok antolatutako lehenbiziko hezkuntza ikastaroa. Iazko urtarrilean hezkuntza jardunaldiak egin zituzten Urduñan, eta hezkuntza ez-formalari begira ere zenbait ikastaro burutu dituzte 2019an zehar.

HEZKUNTZA FORMAL ETA EZ FORMALEKO

Hezitzaileentzako hezkidetzan aditua ikastaroa

METODOLOGIA

Metodologia parte hartzailea izango du formazioak. Bizi esperientzietan oinarritua. Teoria eta praktika uztartuko dituen. Formazioaren amaieran idatzizko lan bat entregatu beharko da.

NORI ZUZENDUA

Hezkuntza formalean, zein ez formalean lan egiten duten edo egin nahi duten hezitzaileei bideratua dago. Edo gaian interesa izan dezakeen edozeinentzako.

NOIZ OTSAILAREN 3tik EKAINAREN 8ra arte

Astelehenak: 17:00-20:00 eta asteburu batzuetan garatuko da.

* Gaiak eta egutegi zehatza hurrengo orrian

** Egutegia moldagarria da parte hartzaileek horrela eskatzen badute

NON

Laudioko Faktorian egingo dira saioak. Parte hartzaileen arabera eskualdeko beste herriren batean egin daiteke.

PREZIOA

Kooperatibako bazkideek: 40 euro

Ez bazkideek: 50 euro

84 ORDU
TEORIKO
ETA
16 ORDU
PRAKTIKO



Hezkuntza jardunaldiak antolatu zituen iaz Kokorikok. Aiaraldea.eus

IZEN EMATEA

www.labur.eus/formakuntzak_kokoriko
INFO +: 693 85 53 12 Aritz Lili Lekanda
hezkuntza@aiaraldea.eus



Aurrematrikula egiteko egutegia, dataz data



Datorren astelehenean hasiko da aurrematrikulazio kanpaina. **Garazi Abrisketa**

Datorren asteko astelehenean (urtarrilak 27) hasiko da Haur Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan 2020-2021 ikasturterako aurrematrikulatzeko epea. Otsailaren 6ra arte egongo da eskaerak internet bidez egiteko aukera, gaueko hamabiak arte. 7an, aldiz, amaituko da aukeratutako lehenengo ikastetxean eskaera egiteko epea.

Hurrengo data garrantzitsuak honakoak izango dira: otsailaren 25ean eskatzaileen zerrenda argitaratuko da eta martxoaren 17an plazaratuko dira behin behineko zerrendak. Hilabete horretako 25era arte egongo da zerrendei behin-behineko erreklamazioak egiteko aukera. Gauzak hala, 31n plazaratuko dira behin betiko zerrendak.

Euskadi.eus atarian topatu daiteke eskaerak aurkezteko baliatu beharreko dokumentazio guztia. Ikasle bakoitzeko eskaera bat aurkeztu ahaliko da soilik. Hori bai, eskaera orrian

hamabi hezkuntza zentro zerrendatu ahaliko dira. Garrantzitsua da dokumentazio guztia ondo entregatzen dela ziurtatzea, bestela eskabidea osatu gabe geratuko delako.

Hizkuntza eredua aldatu nahi dutenek ere derrigorrezkoa izango dute aurrematrikulatzea. Era berean, urtebeteko gelan dauden haurrak ere aurrematrikulatu beharko dira bi urteko gelan sartzeko.

Living English

Bidaiatzeko ingelesa
Ikastaroak goizez eta arratsaldean

Haurtxoentzako ingelesa
Informa zaitez konpromisorik gabe

Solozelai s/n, Landio
94 403 06 52 · 638 050 765

UDAKO IKASTAROAK
Irlandan
Erresuma Batuan
AEBn
Frantzia
Alemanian

12-18 urte bitarteko
gazteentzat eta helduentzat

Bihurtu ezazu 2020a zure hizkuntzen loraldia!

688 90 51 74 / openyourmindschool@gmail.com
San Anton enparantza 1, Amurrio (lehengo "It's elementary")

Artikulua



KOKORIKO HEZKUNTZA FAKTORIA

Matrikulazioaren aurrean, hainbat aholku

Haurrak eskolatu egiten ditugu, batzuetan nahi ez dugun arren. Erabaki zail honetan laguntzeko, hainbat irizpide ditugu zuekin konpartitzeko.

Eskolak haurtzaroaren kultura aintzat hartu behar du, eta haurra zentroan kokatu. Haurrek/gazteek euren modu etiko, estetiko eta poetiko propioa dute mundua ikusteko, eta gai dira euren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dioten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeke.

Beraz, gai dira euren erabaki propioak hartzeko eta nahi dutena adierazteko. Haurrek eta gazteek mugimendu eta jolas librearen bitartez esperimendu eta ikasi egiten dute, eta kalitatezko zaintza eskaini behar zaio bai haurrari, zein bere inguruneari, hezkuntza pertsonaren barrutik kanpora doan prozesua bilakatuz.

Eskolak, etapa guztietan, mugimendu libre hau ahalbidetu behar du eta jolas librean zein esperimenduan oinarritu behar du bere jarduna.

Eskolak ezin du haurren/gazteen sormena moztu. Eta balioetan oinarritua egon behar du (inklusioa, kultur artekotasuna, hezkidetzat...). Eskolak hurbila eta konfiantzazkoa izan behar du, hezkuntza komunitatearekin koordinatua eta familiekin harreman gertua eta benetakoa duena.

Eskola tokikotasunean eraikia izan behar du. Tokiko gaiak landuz, Euskal Herrian kokatua eta euskaraz.

AINTZINAKO ANDRA MARIA IKASTETXEA

URDUÑA

KRISTAU ESKOLA

- Hautzaindegia (7:30etatik aurrera).
- Bi urteko gela, hautzaindegiko ordutegia eta egutegiarekin.
- Bizkortze goiztiarraren sistema (DOMAN).
- Orientabidea.
- Ikasketa bidaia.

ELEANIZTASUNA

- Euskara erreferentziatzen hartuta, ikasle eleanitzak indartzen dira.
- EGA prestatzeko taldea.
- Ingelesa indartua. Cambridgeko azterketa-zentroa.

Konpetentzia digitala
Sare-hezkuntza gelan

- Informazio eta komunikazio teknologien uztarketa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan.
- Familiekiko komunikazio arloan ikastetxe berritzailea izan nahi du eta, horretarako, tresna digitalak erabiltzen ditu: Alexia Familia plataforma.
- Teknologia digitalen erabilera ikaskuntza prozesuetan (1x1 proiektua)

ZERBITZU OSAGARRIAK ETA AZPIEGITURAK

- Orozkotik eskola-garraioa
- Bertan prestatutako janaria eskaintzen duen jangela.
- Informatikako gelak eta internetera sarbidea ikasgela guztietan.
- Laborategia.
- Kirol- instalazio handiak.
- Ordutegia zabaltea familiako eta lanen bizitzan bateratzen laguntzeko.

Foru Plaza, 5 48460 - Urduña (Bizkaia) 945 384 830 secretaria@colegiojosefinos.com

2013

Amaurre ikastetxea

"Pertsonen aldeko apustua egiten dugu Amaurren"

PROIEKTU ERABERRITUA DA **AMAUURRE IKASTETXEA**. AMURRIO ZEIN AIARALDEKO UMEEI BALIOETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZEA DU XEDE.

Proiektu berria da Amaurre.

Hala da. Zentroaren kudeaketa Bidaide fundazioak hartu zutenean hausnarketa prozesu batean murgildu ginen hezkuntza proiektua eguneratzeko. Irailean egin genuen ikastetxearen izen berriaren aurkezpena, Amurrio Antzokian. Orduan hasi zen etapa berria.

Zertan datza hezkuntza proiektu berria?

Hasieratik egin dugu pertsonaren aldeko apustua. Pertsonen gaitasunak sustatu nahi ditugu, baina ez soilik alor akademikoan. Oinarritzko balioak ere sustatu nahi ditugu.

Nola sustatzen dituzue familiekiko harremana eta inplikazioa ikastetxearen bizitzan?

Familiekin ere osoa harreman estua dugu, elkarlana eta elkarlaguntza oinarri izanda. Aurten

bi proiektu berri ditugu familiekin egiteko. Mendi talde bat sortu dugu. Bi irteera egin ditugu eta oso arrakastatsuak izan dira, oso giro polita sortu da. "Hurbilean" egitasmoa ere sortu dugu: gai interesgarri baten inguruan eztabaidatzeko saioak antolatzen ditugu, kezka eta esperientziak partekatu eta ondorioak plazaratzeko.

Zein dira hezkuntza proiektuaren oinarriak?

Gure hezkuntza proiektuak hainbat oinarri ditu. Balioak dira horietako bat. Gure ikasleek emozio eta sentimenduak identifikatu eta kudeatzen ikasten dute. Bi proiektu ditugu, balio horiek gizartearen ere txertatzeko: Agenda21 eta ikasketa zerbitzua. Lagunduz ikasten dugu. Aniztasuna ere bada gure balioetako bat: edozein umek du tokia gure ikastetxean.

Etorkizunari begira, zeri ematen diozue garrantzia arlo akademikoan?

Konpetentziak ere lantzen ditugu. Mundua etengabe aldatzen ari da: lanbide batzuk desagertu eta berriak agertzen dira... Eta mundu aldakor honetan umeak hezi eta formatu behar ditugu bizitzako erronkei aurre egiteko gai izan daitezten. Pertsona arduratsu, zintzo, langile eta konprometituak hazten ditugu.

Ikasten eta pentsatzen ikaslea, lan-taldean lan egiten jakitea, pentsamendu kritikoko pertsona izatea, autonomoak, eta ikasteko ohitura izatea sustatu nahi dugu, funtsean.

Hizkuntzei ere berebiziko garrantzia ematen diezue, ezta?

Bai. Hizkuntzak edozein egoeratan erabiltzen irakasten diegu ikasleei. "Oinak Amurrioren, begirada munduan". Hori da gure



lema. Euskaldunak gara eta Euskal Herriko euskalduntzean parte aktiboa izan nahi dugu. D eredua dugu, gure ikasleek euskaraz hitz egiteko gaitasuna landu dezaten. Baina ez dugu ahazten mundu globalizatu batean bizi garela eta ingelesaren ezagutzak ere atek zabaltzen dituela lan bizitzan.

Hausnarketa baten ostean erabaki genuen nazioartekotasunera salto egitea. Europar Batasunaren Erasmus+ programangaude. Hainbat ikastetxek parte hartzen dute. Proiektuak egin eta gainontzeko ikastetxeekin partekatzen dira.

Finlandia, Irlanda eta Maltako ikastetxeekin proiektu komun bat garatzen ari gara orain, SOS Save Our Second Languages izeneko. Hizkuntza gutxituak indartzea da egitasmo horren xedea. E-twinning egitasmoa ere dago horren barruan. IKTak erabiliz Europako ikastetxeen artean proiektuak partekatzen datza.

Cambridgeko zentro aztertzaileak zarete?

Bai, aurten Cambridgeko azterketak ikastetxean bertan egiteko aukera eskainiko diegu gure ikasleei zein kanpokoei.



LAUDIO BHI

20-21



- **DBH eta BATXILERGO modalitate guztiak**
- **Eskola-saioak goizez**
- **Hauspoa ekintzak arratsaldez**
- **Eleanitza Proiektua**
- **Erasmus +**
- **Aniztasun trataera zabala**
- **Jantokia eta garraioa diruz lagundua**
- **Lanbide Heziketa**



ATE IREKIAK
Urtarrilak 29
18:00

MATRIKULAZIO
EPEA
Urtarrilaren 27tik
Otsailaren 7ra arte